



**01**

## **EMAITZAK ETA AZTERKETAK**

**>>>**

### **2006KO HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN NEURKETA: AURREIKUSPENAK ETA EMAITZAK**

**Kike Amonarriz**

*Soziolinguista*

Helbide elektronikoa: [kamonarriz@euskalnet.net](mailto:kamonarriz@euskalnet.net)

#### **SARRERA**

Euskal Herrian Soziolinguistikaz interesaturik dagoen inor gutxi harritu-ko da gaur egun, "Hizkuntzen kale-erabileraren neurketa" bat egin dela jakitean. Esparru honetan lanean ari diren profesional eta gaiak jakinmina sortzen dien euskaltzale gehienei, normala irudituko zaie mota honetako datuak esku artean izatea.

Kale-erabileraren neurketak hizpide, nabarmendu beharreko lehen aspektua ordea, hau da; datu horiek eduki baditugula; nik dakidala, beste inongo hizkuntza-komunitatetan ez baita era eta neurri honetako neurketarik egiten.

Izan ere, metodo hau Euskal Herrian sortua da, bertan doitua eta garatua. 80ko hamarkadan, Euskal Herriko soziolinguistikan aitzindari izan dugun Iñaki Larrañagaren ekimenez landu zuen SIADECO Ikerketa-Elkarteak eta geroztik, Euskal Herriko hamaika herri eta eremutan eraman du eta darama praktikara. Metodo honi eta ondorengo urtetan EKBk, SEIk eta enparauek egindako bilketa-lan erraldoiari esker, dugu langai informazio aberats eta osotu hau. Berau eskuratzea posible egin duten guztiei, bihoazkie lerroetatik nire eskerrik beroenak.

## AURREKARIAK ETA AURREIKUSPENAK

Gure bilakaera sozio-linguistikoaren diagnosi zehatza egin ahal izateko, era askotako datuak erabili behar ditugu eta faktore eta aldagai askori erreparatu. Baina, kale-erabileraren neurketetatik lortutakoek kualitatiboki guztiz garrantzitsua den informazioa eskaintzen digute; azken batean, hizkuntza normalizazio-prozesuaren arrakasta-mailaren indizerik fidagarrienetako bat, hiztunek hizkuntzaz egiten duten erabilera baita, eta soziolinguistikaren teoria nagusi guztiak bat datoz esatean, hiztunen arteko harreman ohikoenak eta gertuenak direla hizkuntzaren bizi-indarraren islarik garbiena.

Kaleko erabilerak, beraz, informazio aberatsa eskaintzen digu, hizkuntzen presentzia sozialaz, prestigioaz, erabilera-mailez, irabazi-galerez, etab.

Arazoi hauengatik guztiengatik, interes bereziz irakurri izan ditut hizkuntzen kale-erabileraren neurketen datuak. Oraingoan gainera, Soziolinguistika Klusterreko Lionel Joly adiskideak, 2006ko datuen inguruan hipotesi batzuk lantzeko eta BAT aldizkarian argitaratzeko eskatu zidanez,<sup>1</sup> jakinmin zientifikoa, egindako apustua asmatu duen ala ez jakin nahi duen jokuzalearen egonezinarekin nahastu zitzaidan. Izan ere, artikulua hori aukera egokia iruditu zitzaidan “bustitzeko” eta hipotesiekin batera, emaitzen aurreikuspenak, ahalik eta kopururik zehatzenetan emateko.

Ondorengo lerrootan, beraz, hipotesi eta emaitzen aurreikuspenak, 2006an lortutako datuekin eta aurreko neurketen inguruan idatzitakoekin erkatuko ditugu, batez ere 2001eko neurketaz egin ziren balorazioekin.<sup>2</sup>

Aurreikuspenak lantzerakoan, honako aldagai hauek hartu nituen aintzat, batez ere:

- Populazioaren bilakaera demografikoa eta soziolinguistikoa.
- Aurreko neurketetako datuak eta berauen bilakaeraren nondik-norakoak.
- Aurreko kale-neurketetan somatutako gora-behera batzuk; batez ere, Arabako eta Nafarroako eskualde batzuetan 1993 eta 1997an jaso ziren erabilera-indize altuak.

Eta datuen irakurketari ekin baino lehen ohar bat. Era honetako neurketen emaitzetatik, erabilpen-lerro nagusiak atera behar dira eta errakuntza-tartea aintzat harturik irakurri behar dira beti (aldagai askok eragin dezakete). Metodologia honen azalpenean esaten zen bezala, “*Neurketa hauen balio nagusia urtez-urteko datuen konparaketatik dator; erabilpen-maila edo norabideak markatzen, beraz. Daturik alderagarrienak noski, jende kopuru gehien biltzen dutenak dira*”.<sup>3</sup>

5 neurketek oso joera nabarmenak adierazi dituzte eta oso “zerrenda” estuak marraztu dituzte. Jasotako datu gehienak proportzio-tarte estuen barruan kokatu dira, neurketen fidagarritasuna nabarmenduz.

*Gure bilakaera sozio-linguistikoaren diagnosi zehatza egin ahal izateko, era askotako datuak erabili behar ditugu eta faktore eta aldagai askori erreparatu. Baina, kale-erabileraren neurketetatik lortutakoek kualitatiboki guztiz garrantzitsua den informazioa eskaintzen digute; azken batean, hizkuntza normalizazio-prozesuaren arrakasta-mailaren indizerik fidagarrienetako bat, hiztunek hizkuntzaz egiten duten erabilera baita, eta soziolinguistikaren teoria nagusi guztiak bat datoz esatean, hiztunen arteko harreman ohikoenak eta gertuenak direla hizkuntzaren bizi-indarraren islarik garbiena.*

**2006ko euskararen kale-erabileraren emaitza orokorra %14,2koa izan da eta beraz, 0,7ko hobekuntza izan dugu 5 urteotan. Emaitza, egindako aurreikuspenen barruan kokatu da; eta azken urteotako bilakaeraren jarraipena dela esan genezake.**

**1989an burutu zen lehen neurketako %10,8tik %14,2ra heldu gara. Datuen norabidea ona da; euskararen erabilera hobetu egin baita neurketa guztietan. Esan genezake, orokorrean, Euskal Herrian gero eta euskara gehiago erabiltzen dela leku publikoetan.**

Nolanahi ere, neurketa honetako emaitzetan ikusiko dugun bezala, badira joera orokorretatik kanpo kokatu diren datuak. Batzuk, oso deigarriak dira eta desbideraketa horiek zergatik gertatu diren zehaztea oso garrantzitsua izan liteke: ea neurketa bertako gertakariren baten, edo aurreten metodologian ezarritako aldaketaren baten ondorio diren (tamaina honetako neurketa batean horrelakorik gertatzea ez baita ezohikoa), edo eremu edo esparru soziologiko jakinen batean gertatu den joera berezi baten isla diren zehaztea, alegia.


### ERABILERAREN EMAITZA OROKORRA ETA HAZKUNDE-ERRITMOA

Erreferentziatzat, 2001eko neurketako emaitza orokorra harturik (%13,5), erabilera-indize orokorra 0,7 eta puntu 1en artean hobetuko zela aurreikusitua nuen, ohar hau eginez: *“Baxuagoa gertatuko balitz kezagarria litzateke (...) %1etik gorakoa balitz, oso positibotzat baloratuko nuke”*.

**Euskararen erabilera Euskal Herrian**

1989	1993	1997	2001	2006- Hipotesia	2006- emaitzak
10,8	12,0	13,0	13,5	14,2 - 14,5	14,2

2006ko euskararen kale-erabileraren emaitza orokorra %14,2koa izan da eta beraz, 0,7ko hobekuntza izan dugu 5 urteotan. Emaitza, egindako aurreikuspenen barruan kokatu da; eta azken urteotako bilakaeraren jarraipena dela esan genezake.



1989an burutu zen lehen neurketako %10,8tik %14,2ra heldu gara. Datuen norabidea ona da; euskararen erabilera hobetu egin baita neurketa guztietan. Esan genezake, orokorrean, Euskal Herrian gero eta euskara gehiago erabiltzen dela leku publikoetan. 2001eko neurketaren emai-

tzak aurrean, Olatz Altunak “bilakaera positiboa izan da” idatzi zuen.<sup>4</sup> Aurtengoak, hobetu egin du bilakaera positibo hori.

Nolako balorazioa egin behar da, baina? Baikorra? (Aurrera goaz!) Edo ezkorra edo kritikoa? (Egindako ahaleginak eginda gero, oso motel goaz! edo Askoz ere gehiago aurreratu zitekeen!). Alegia, pozteko, konformatzeko ala kezkatzeko moduko datua da, 1989tik 2006ra bitartean, 17 urtetan, euskararen erabilera %11tik %14ra igo izana? Ez dut uste, erantzuna adjektibo bakar batean bildu daitekeenik. Erabileraren hobekuntzak –txikia izan arren– balorazio positiboa izan arren, hazkundearen erritmo-motelak eta ondoren ikusiko ditugun, hainbat aldagairen arabera emaitzek, kezka uxatetik oso urrun kokatzen gaituzte. Bestalde, datuen interpretazio egokiagoa egin ahal izateko, ezagupenaren inguruko emaitza berriak ezagutzera itxaron beharko dugu.

Nolanahi ere, datuak agerian utzi digute aldaketa soziolinguistikoen erritmo mantsoa, hizkuntza aldaketan eragiten duten faktoreen arteko lotura eta eragin-maila konplexua, eta egoera soziolinguistikoen aniztasuna.

Hobekuntzaren testuinguruan, hazkunde erritmoarena kezka-iturri izan da. Aurreko 4 neurketetan euskararen erabilerak hobera egin bazuen ere, neurketatik neurketarako hazkunde-erritmoa moteldu egin zen. 2006ko neurketari begira, hauxe zen gure hipotesia: “1989tik aurrera hazkunde-erritmoa moteldu bada ere (...), 2006ko neurketak hobetu egingo du (...)%4 eta %7ren artean kokatuko litzateke”.

2001etik 2006rako hazkunde-erritmoa %5,2koa izan da. Aurreko neurketen arteko %11,1, %8,3 eta %3,8ko hurrenkerak erakusten zuen geldotze-prozesua galgatu egin du, hobekuntzaren erritmoa pittin bat azkartuz, nahiz eta lehen neurketatik bigarrenera eta bigarrenetik hirugarrenera lortutako erritmoetara ez iritsi.

## HERRIALDEKAKO EMAITZAK

Hipotesia: “Herrialdeka, orain arteko hobekuntza-ildoak mantenduko direla iruditzen zait. Gipuzkoan eta Bizkaian puntu batetik gorako hobekuntza-maila lortzea aurreikusten dut. Araban eta Nafarroan puntu baten ingurukoa eta Iparraldean, erabilerak, oraindik ere, beherantz egingo duela esango nuke”.

Eta hauek emaitzak:

*Euskararen erabilera Euskal Herrian, herrialdeen arabera*

	1989	1993	1997	2001	2006- Hipotesia	2006- Emaitzak
Gipuzkoa	23,3	25,5	29,2	29,9	<b>32 (+/-1)</b>	<b>32,7</b>
Bizkaia	8,1	9,1	9,7	11,0	<b>13 (+/-1)</b>	<b>10,4</b>
Nafarroa	6,5	6,7	6,8	6,6	<b>8 (+/-0,5)</b>	<b>6,6</b>
Iparraldea	-	6,5	6,3	5,8	<b>5 (+/-0,5)</b>	<b>4,6</b>
Araba	3,9	3,9	3,8	3,3	<b>4 (+/-0,5)</b>	<b>4,7</b>

**Datu hauek erakusten diguten errealitatea gordina da, azken batean erabileraren hobekuntza nabarmena Gipuzkoara mugatzen delako: 89ko %23tik %33ra. Bizkaiak gutxi aurreratu du, %8tik %10-11ra eta Arabak %3-4tik %4-5era. Nafarroan ez dago inolako mugimendurik (beti %6-7aren inguruan) eta Iparraldean %6-7tik %4-5era jaitsi gara.**

**Hizkuntza-normalizazioaren ikuspegitik, kezkarriak dira, inondik ere, Iparraldeko galera etengabea eta Bizkaia eta Nafarroako atzera-aurrera gabeko egoerak.**

**89ko hurrenkerak, hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, bazuen alderdi positiborik (haurrak ziren euskara gehien zerabiltenak), baina baita aspektu kezkarriarik ere (gazteak ziren gutxien zerabiltenak). 2006ko neurketak utzi digun hurrenkera berriz, izan daitekeen onena da hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, euskararen erabilera igo egiten baita adinean jaitsi ahala.**

Gipuzkoan eta Iparraldean lortutako emaitzak aurreikuspenen barruan sartu dira, espero zitezkeen joerak berretsiz. Gauza bertsua geratu da Araban, lortu den emaitzak aurreikuspena bi hamarrekotan hobetu badu ere.

Hipotesietan aurreikusten genituen joeretatik kanpo, eta bi kasuetan euskararen erabilera baxuagoarekin, geratu dira Nafarroa -2001eko datua errepikatuz-, eta Bizkaia -2001ekoa baino emaitza kaskarragoa lortuz-.

Hipotesiak egiterakoan, hiru joera aurreikusi nituen:

- Bizkaian eta Gipuzkoan, hobekuntzarik azkarrenak. Aurreikuspen guztietatik kanpo uzten nuen aurreko neurketetakoak baino emaitza baxuagoak lortzea.
- Araban eta Nafarroan hobekuntza motelak. Nahiz eta errealitate soziolinguistiko oso desberdinak izan, emaitzetan joera paretsua izango zutela aurreikusten nuen.
- Iparraldean galera motela.

Datu hauek erakusten diguten errealitatea gordina da, azken batean erabileraren hobekuntza nabarmena Gipuzkoara mugatzen delako: 89ko %23tik %33ra. Bizkaia gutxi aurreratu du, %8tik %10-11ra eta Arabak %3-4tik %4-5era. Nafarroan ez dago inolako mugimendurik (beti %6-7aren inguruan) eta Iparraldean %6-7tik %4-5era jaitsi gara.

2001eko emaitzez honela zioen Olatz Altunak: “Bizkaian eta Gipuzkoan erabilera apal emendatzen da, eta bi lurraldeotako emaitzek, orokorrean duten pisuagatik, ezkutatu egiten dute Nafarroako, Arabako eta Iparraldeko erabileraren aurrerabiderik eza kasu batzuetan eta jaitziera besteetan”.<sup>5</sup> 2006ko neurketan, Gipuzkoako emaitzek estali dituzte besteak, Arabak ere bere aletxoak jarri duelarik.

Bizkaiko datua izan da, ezpairik gabe, harrigarriena. Aurreko neurketetan soma zitekeen hobekuntza-prozesu motela, “egoera egonkor” bihurtu du azken neurketaldiko atzerakada txikiak. 97tik 2006ra 3itarteko 4 neurketaldiak %10-11 arteko proportzioetan kokatu dira. Atzerakadarik egon denik ezin esan genezake, baina garbi ondoriozta genezake azken hamarkada honetan aurrerapen nabarmenik ere ez dela izan.

Nafarroako kasua konplexuagoa da: euskararen aurkako faktore sozio-politikoak, bertako euskararen hezkuntzaren hedapen murrizta, etorkinen kopuru handiagoa... Horiek aintzat harturik ere, hobekuntza aurreikusten nuen. Batetik, 2001eko neurketan eskualde batzuetan oso emaitza baxuak jaso zirelako aurreko neurketen aldean, eta horiek desbideraketatzat hartzen nituelako, eta pentsatzen nuelako, zonalde euskaldunekoaz gain, Iruñerriko haur eta gazte euskaldunen erabileraren hobekuntza gehixeago nabaritutako zela. Datuak ikusita, ordea, Nafarroa “inpassee” egoera nabarmenean dagoela ondoriozta genezake, egin diren 5 neurketaldiak %6,5-6,8 artean kokatu baitira. Arrazoi zuen

Mikel Arregik Nafarroako emaitzei buruz ari zela honakoa idatzi zue-  
nean: “*Gauza batean ez dago zalantzarik, bide honetatik segituz gero erabile-  
rak ez du gora egingen*”.<sup>6</sup>

Iparraldean berriz, galera prozesua bizkortu egin da azken neurketa  
honetan. Jaitsiera garrantzitsu hau dela medio, eta neurketa hauek egiten  
hasiz geroztik, estrainekoz da Iparraldea euskara gutxien entzuten den  
lurralde-eremua, Arabaren atzetik.

Izan ere, aurreko 4 neurketaldietan %3-4 arteko proportzioak lortu  
ondoren, azken neurketa honetan Arabak %4,7ko proportzioa lortu bai-  
tu, %20an emendatuz aurreko neurketetan lorturiko erabilera proportzio-  
rik altuena. 2001eko datuez Iñaki Martínez de Lunak eginiko irakurketa-  
ren muina aldatu ez bada ere, seguruenik, beste bizipoz batez irakurriko  
ditu 2006koak.<sup>7</sup>

Hizkuntza-normalizazioaren ikuspegitik, kezkarriak dira, inondik  
ere, Iparraldeko galera etengabea eta Bizkaia eta Nafarroako atzera-  
aurrera gabeko egoerak.

## **ADIN-MULTZOKAKO EMAITZAK**

1989an, honela sailkatu ziren adin-multzoak erabilera-indizeen arabera:

Haurrak (%15,1) – Adinekoak (%13,7) – Helduak (%9,2) eta Gazteak  
(%8,5).

Neurketa bakoitzean hurrenkera hori aldatu egin da, 2001ekoa honako  
hau zelarrik:

Haurrak (%19,0) – Gazteak (%13,6) – Adinekoak (%12,0) eta Hel-  
duak (%11,3).

2006ko neurketarako hurrenkera bertsua aurreikusi genuen, zalantza  
bakarra adieraziz: “*Adinekoen eta Helduen posizioak. Nolanahi ere, oso tarte  
txikia izango da bien artean. Etorkizunari begira, hurrenkera horren hurrengo  
aldaketa horixe izango da: adinekoak bihurtuko direla erabilera-indize baxueneko  
adin-multzoa. Eta zalantza, hori noiz gertatuko bazen ere, 2006ko neurke-  
tan jazo da. 2006an, adin-multzoak honela sailkatu dira:*

Haurrak (%20,8) – Gazteak (%13,8) – Helduak (%12,3) eta Adineko-  
ak (%10,6).

89ko hurrenkerak, hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, bazuen  
alderdi positiborik (haurrak ziren euskara gehien zerabiltenak), baina  
baita aspektu kezkarrikerik ere (gazteak ziren gutxien zerabiltenak).  
2006ko neurketak utzi digun hurrenkera berriz, izan daitekeen onena da

---

***Bizkaian aldiz, haur eta  
gazteen erabilera  
proportzioak (baita  
adinekoena ere)  
baxuagoak dira 2006an,  
2001ean baino: %16,5etik  
%15,4ra eta %9,5etik  
%8,1era. Bizkaiko datu  
hauek eragin handia izan  
dute emaitza orokorretan.  
Ardura handiz aztertu  
beharko da beraz,  
hurrengo urteetan,  
jaitsiera hau lagin-  
errakuntzaren ondorio  
izan den edo sustrai  
sakonagoak dituen.***

hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, euskararen erabilera igo egiten baita adinean jaitsi ahala.

Adin-multzoei buruzko hipotesi zehatzak hauek ziren: *Haurrek eta gazteek puntutik gorako hobekuntza lortuko dute; helduen erabilera-indizea pittin bat hobetuko da (puntuaren bueltan) eta adinekoena mantendu egingo da, edo pittin bat jaitsi, helduenarekin parekatuz. Eta gertatutakoa hauxe:*

**Euskararen erabilera Euskal Herrian, adin-taldean arabera**


	1989	1993	1997	2001	2006-Hipotesia	2006-emaitzak
Haurrak	15,1	16,7	17,7	19,0	21 (+/-1)	20,8
Gazteak	8,5	10,4	11,9	13,6	15 (+/-1)	13,8
Helduak	9,2	10,0	11,0	11,3	12 (+/-0,5)	12,3
Adinekoak	13,7	13,0	12,8	12,0	12 (+/-0,5)	10,6

Haurrei eta helduei zegozkien aurreikuspenak bete egin dira: Haurrek gainera, %20ko muga gainditu dute, marra hori lehen aldiz hautsiz.

Adinekoen erabilera uste baino gehiago jaitsi da. Helduen eta adinekoen ezagupen-mailak eta erabilera proportzioak bateratzen ari direnez (ezagupen-maila jaitsi egiten da urtez-urte zaharrenak direlako euskaldunenak, ezagupen-mailarik txikiena gaur egun 60-70 urte inguru dituztenen artean kokatzen delarik), erabilera-proportzioak bere horretantsu mantenduko zirela uste genuen, baina adinekoen beheranzko joera mantendu ez ezik, aeragotu egin da.

Gazteen indizea apenas hobetu den (+0,2), gure aurreikuspenik baxuenaren azpitik geratu delarik. 0,2ko hobekuntza ezin liteke positiboki baloratu, indize honek, lortutakoa mantendu dela baino, irabaz zitekeena ez irabazi izana salatzen digulako.

Beheko diagraman jaso dugu euskararen erabileraren bilakaera, adin taldeen arabera:



Adin-multzoak herrialdeka aztertuta berriz, honako alderdi deigarri hauek topatu ditugu:

- Araban, 2001eko datuen aldean, haur eta gazteen erabilera proportzioak nabarmen hobetu dira (%4 ingurutik %7 ingurura). Helduena ere asko igo da (%3,2tik %4,5era). Zaharren artean aldiz, euskararen erabilera %1en azpitik jarraitzen du.
- Gipuzkoan adin-multzo guztietan handitu da erabilera, zaharren artean izan ezik. Nabarmentzeko moduko datu historikoa honako hau: haurren erdiak euskaraz ari dira jada Gipuzkoako leku publikoetan. 1989an %34, 2006an %50.
- Bizkaian aldiz, haur eta gazteen erabilera proportzioak (baita adinekoen ere) baxuagoak dira 2006an, 2001ean baino: %16,5etik %15,4ra eta %9,5etik %8,1era. Bizkaiko datu hauek eragin handia izan dute emaitza orokorretan. Ardura handiz aztertu beharko da beraz, hurrengo urteetan, jaitsiera hau lagin-errakuntzaren ondorio izan den edo sustrai sakonagoak dituen.
- Iparraldean heldu eta zaharren erabilera-proportzioak jaitsi egin dira nabarmenki. Haurren artean ez da hobekuntzarik nabari (4 neurketetan 0,4ko aldea dago) eta sorpresatxoak gazteek eman dute, erabilera datua pittin bat hobetuz: 4 neurketetako daturik baxuena izan zen 2001eko %2,7tik, %3,6ra igo dira.
- Nafarroan aurreko neurketarekiko aldeak txikiak dira, inoiz ez puntua baino handiagoak. Alderik handiena gazteek lortu dute erabilera ia puntu batean hobetuz (%6,9), baina kontrara haurren artean ez da hobekuntzarik nabari, joera beheranzkoa delarik: 1989ko %9,8tik, 2006ko %8,5era. Arduraz jarraitu beharreko datua da, azken hau ere.

Datuak xehekiago azter ditzagun, arreta berezia eskatzen duten puntuak zehazte aldera.

- Gazteen arteko erabilera-proportzioa jaitsi den lurralde bakarra Bizkaia izan da.
- Taulak xehe-mehe aztertuta, badago, aurreko neurketekiko desbideraketa guztiz ezohikoak agertzen dituen eremu bat: gaitasun-maila %25-50 bitartean kokatzen den zonalde soziolinguistikoa. Bizkaian gainera, gaitasun-maila %25etik gorakoa den 3 zonaldeetan gertatu dira desbideraketak. 2006ko erabilera-proportzioak aurreko neurketetakoak baino txikiagoak dira, 1993koen parera jaitsi direlarik.

---

**2006ko neurketak ekarri digun berrikuntzetako bat, gaztelania edo frantsesa ez diren beste erdarak "beste hizkuntzak" atalean jaso izana da.**

**Lehen neurketa izanik, jaso beharreko lehen datua, "beste hizkuntza" horien presentzia da. Gaur egun txikia izan arren (%2,3), proportzio hori handitzen joango dela aurreikus genezake.**



Euskararen erabilera Bizkaian, ezagupena %25-50 bitartekoa den zonalde soziolinguistikoan

Urtea	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak
1993	13,5	20,5	8,7	11,0	14,3
1997	16,7	24,8	11,3	14,6	18,2
2001	20,8	30,2	17,9	16,2	29,2
2006	13,6	19,1	9,9	12,5	8,7

Nafarroa eta Arabako zonalde soziolinguistiko berean ere, ezohizko desbideraketak topatu ditugu:

Euskararen erabilera Nafarroan, ezagupena %25-50 bitartekoa den zonalde soziolinguistikoan

Urtea	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak
1993	14,6	15,7	13,1	12,3	0,0
1997	20,3	28,6	17,1	20,3	10,8
2001	9,0	10,9	11,3	5,8	13,5
2006	3,6	5,3	2,8	3,1	2,4

Euskararen erabilera Araban, ezagupena %25-50 bitartekoa den zonalde soziolinguistikoan

Urtea	Guztira	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak
1993	10,2	16,7	0,0	12,1	0,0
1997	19,5	26,1	9,5	18,5	23,7
2001	12,4	18,0	3,5	8,0	31,8
2006	4,3	6,2	6,2	4,1	0,6

Taula horietako emaitza asko edozein logikatik kanpo daude. Denak zonalde soziolinguistiko berean gertatu izanak ordea (ezagupena %25-50), neurketak izandako aldaketen ondorio izan daitekeela pentsarazten digu. Mereziko luke, Bizkaiko datu hauen jarraipen zehatzagoa egitea.

## BESTE HIZKUNTZEN ERABILERA

2006ko neurketak ekarri digun berrikuntzetako bat, gaztelania edo frantsesa ez diren beste erdarak "beste hizkuntzak" atalean jaso izana da.

Lehen neurketa izanik, jaso beharreko lehen datua, "beste hizkuntza" horien presentzia da. Gaur egun txikia izan arren (%2,3), proportzio hori handitzen joango dela aurreikus genezake.

Adin-taldee begira, batezbesteko horretatik gora kokatzen dira helduak (%3,1) eta herrialdeen artean Araba (%2,5). Iparraldean berriz, guztiz emaitza harrigarria jaso da, entzun diren elkarrizketen artean %10 ez baita ez euskaraz, eta ez frantsesez entzun. Horiek horrela, %10 horren barruan, gehienak, gaztelaniaz ari zirela pentsa dezakegu. Gertakari

honek azaldu dezake, bestalde, Iparraldeko beherakada espero zitekeena baino handiagoa izatea. Hurrengo urteetarako egokitzapen metodologikoa beharko luke honek.

## SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK

Aurreko neurketetan atzemandako joera nagusi hauek mantendu egingo zirela aurreikusi genuen:<sup>8</sup>

- *Haur eta, batez ere, gazteen artean neskek mutilek baino erabilera-indize hobeak lortuko zituztela.*
- *Helduen eta adinekoen artean, erabilera-indizeak nahikoa paretsuak izango zirela.*

Generoaren arabera ditugun datu bakarrak Hegoaldeko hiriburueta-koak direnez, horien inguruan emango ditugu azalpenak.

*Euskararen erabilera Hegoaldeko hiriburuetan, sexuaren arabera*

2006	Haurrak		Gazteak		Helduak		Zaharrak	
	Em	Gz	Em	Gz	Em	Gz	Em	Gz
Hiriburua								
Gasteiz	6.1	5.4	7.1	5.2	3.9	3.5	0.7	0.6
Bilbo	8.7	6.4	4.2	2.7	4.6	3.8	1.7	1.4
Donostia	36.1	31.9	21.8	13.3	15.3	14.9	6.9	8.5
Iruñea	4.5	1.8	2.7	2.0	4.1	1.7	2.5	1.8

Lau hiriburuetan eta adin-tarte guztietan emakumeek gizonaek baino euskara gehiago darabilte. Salbuespen bakarra hiribururik euskalduneneko (Donostia) adin-tarterik zaharrenean aurkitu dugu. Gizonaek emakumeek baino euskara gehiago egiten zuten garaiko azken arrastoa, agian?

Espero genuen bezala, emakumeen aldeko aldeak nabarmenak dira haurren, eta batez ere gazteen artean. Heldu eta zaharren artean, berriz, aldeak oso txikiak dira, baina arestian aipatu bezala, salbuespen bakarra-ekin, beti emakumezkoen aldekoak.

Jone Miren Hernández izan da genero ikuspegia gehien sakondu duen ikerlarietako bat. 2001eko neurketa zela eta, zioena errepikatu besterik ez dugu egingo: “*sexuen arteko aldeak ulertzerakoan, sexu bakoitzari sozialki egokitutako arauak, rolak, aurreikuspenak... kontutan hartu behar ditugu*”.<sup>9</sup> Eta amaitzeko hona berak planteatu izan dituen galderak: “*Aldaketen agenteak eta protagonistak berriz emakumeak dira. Zer gertatzen da gizonaek? Non daude gizonak aldaketa prozesu honetan?*”.<sup>10</sup>

*Lau hiriburuetan eta adin-tarte guztietan emakumeek gizonaek baino euskara gehiago darabilte. Salbuespen bakarra hiribururik euskalduneneko (Donostia) adin-tarterik zaharrenean aurkitu dugu. Gizonaek emakumeek baino euskara gehiago egiten zuten garaiko azken arrastoa, agian?*

## HAURREN PRESENTZIAREN ARABERAKO EMAITZAK

Sexuaren aldagaiarekin bezala, haurren presentziari buruz ditugun datu bakarrak hiriburuetakoa dira.

Gure hipotesia hauxe izan zen: *“Haurren presentziak nabarmen hobetu-ko ditu erabilera-indizeak. Joera orokorretan ez da alde handiegirik egongo 2006ko eta aurreko neurketaren artean. Are gehiago, zonalde erdaldunenetan, haurrekiko harremanetan hobekuntza handiagoa espero daiteke”*.

*Euskararen erabilera Hegoaldeko hiriburuetan, haurren presentziaren arabera*

2006	Haurrak		Haurrak eta nagusiak	Haurren artean	Nagusien artean
	Bai	Ez			
Gasteiz	5.9	2.6	8.9	0.8	3.0
Bilbo	7.3	3.8	9.9	4.3	4.4
Donostia	31.6	11.8	38.0	32.2	20.0
Iruñea	4.4	5.3	6.9	0.8	2.1

2006ko datuek berretsi egiten dute hipotesi hori, baina neurri batean bakarrik. Izan ere:

- Elkarrizketetan haurrak tarteko direnean, euskararen erabilera nabarmen handiagoa da, haurrik ez dagoenean baino, Iruñean izan ezik.
- Nagusiak haurrekin ari direnean ere, askoz ere euskara gehiago darabilte, nagusien artean ari direnean baino.
- Baina oso datu kezagarria da, Donostia ez beste hiriburuetakoa haurren arteko elkarrizketetako euskararen erabilera baxua. Gasteizkoa iazkoaren oso antzekoa da, Bilbon hobetu egin da (%2,6tik %4,3ra) baina Iruñean aitzitik, sekulako jaitsiera gertatu da: %5,9tik %0,8ra.

Bestalde, eta hipotesietan esandakoaz oso bestela, haurrik gabeko elkarrizketetan euskararen erabilera gehiago igo da, haurrak tarteko direnetan baino. Badirudi ingurunerik erdaldunenetan, helduak direla haurren euskararen erabileraren motore, eta pizgarri hori gabe, hizkuntza nagusiaren indarrak eta beronekiko inertiak gailentzen direla.

## GAITASUN-MAILAREN ARABERAKO EMAITZAK

Hipotesia: *“Zonalderik euskaldunen eta erdaldunen arteko alde handitu egingo da, euskararen erabileraren hobekuntzari dagokionez, zonalde euskaldunenek erritmo biziagoa agertuko dutelako, erdaldunen aldean.”*

**Euskararen erabilera, gaitasun-mailaren arabera**

Zonaldeak	1993	1997	2001	2006	Aldea (01-06)
%0-25	3.4	3.3	4.0	4.4	+ 0.4 (%10)
%25-50	13.4	17.5	20.5	20.0	- 0.5 (%2,4)
%50-75	36.2	41.8	40.1	41.5	+ 1.4 (%0,6)
%75-100	65.7	66.4	63.4	66.3	+ 2.9 (%4,6)

Zonalderik euskaldunenaren eta erdaldunenaren arteko aldea 59 puntutakoa zen 2001ean eta 62koa berriz 2006an. Erritmoari dagokionez, zonalderik euskaldunenak hobekuntza-erritmo bizia lortu du 5 urteotan. Zonalderik erdaldunenaren ere erritmo biziagoa lortu da, baina oso abiapuntu baxutik abiatuta.

Gaitasun-maila %25-50ekoa den zonaldean puntu erdia galdu da, arestian aipatutako fenomeno delako medio.

Hipotesia bete egin da, beraz, azken bi neurketei dagokienez.

1993tik honantzako bidea aztertuz gero, berriz, tarteko tipologietan lortu da hobekuntzarik nabariena. Gaitasun-maila %25-50ekoa den eremuan %13tik %20ra eta %50-75ekoan %36tik %41era igoz (azken 3 neurketetako aldea txikia delarik).

## **HERRIEN BIZTANLE KOPURUAREN ARABERAKO EMAITZAK**

Maiz entzun izan dugu euskara herri txikietako hizkuntza dela eta eremu horretan erabiltzen dela batez ere. Euskal Herriko euskararen kale erabileraren neurketak ordea, bestelako errealitatea erakutsi digu.

**Euskararen erabilera, herrien biztanle kopuruaren arabera**

Biztanle-kopurua	1993	1997	2001	2006	Aldea (93-06)
< 5.000	24.3	25.1	21.6	22.9	- 1.4 (%5,8)
5.000-10.000	17.5	21.0	21.4	20.9	+ 3.4 (%19,4)
10.000-25.000	22.1	24.3	25.9	26.9	+ 4.8 (%21,7)
25.000-50.000	6.8	6.3	10.9	8.7	+ 1.9 (%27,9)
50.000-100.000	3.5	3.5	5.1	4.9	+ 1.4 (%40)
>100.000	4.0	5.1	5.4	6.3	+ 2.3 (%57,5)

1993an eta 1997an, herri txikietan erabiltzen zen, batez beste, euskara gehien. 2006an, aldiz (2001eko joera berretsiz), 10.000-25.000 biztanleko herrietan entzun da euskara gehien.

Nabarmena da, kopuru absolutuetan 10-25.000 biztanle arteko hiriak izan direla erabilera gehien hobetu dutenak. Hobekuntza-erritmoari dagokionez, berriz, herriak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta erritmo biziagoa lortu dute.

***Donostia ez beste hiriburuetako haurren arteko elkarrizketetako euskararen erabilera baxua. Gasteizkoa iazkoaren oso antzekoa da, Bilbon hobetu egin da (%2,6tik %4,3ra) baina Iruñean aitzitik, sekulako jaitsiera gertatu da: %5,9tik %0,8ra.***

Deigarria da, urteotan herri txikietan gertatu den galera. Eta 2001eko emaitza hobetu badute ere (%21,7), ez dira iritsi 1993ko datuetara. Herri txikietan gertatzen ari diren aldaketa soziodemografiko handien eragina usaindu daiteke gertakari honen azpian.

## ONDORIOAK

Honako hauek dira 2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketatik aterako emaitza nagusienak:

- Euskara gero eta gehiago erabiltzen da Euskal Herrian. 2006an Euskal Herriko elkarrizketen %14,2 euskaraz izan dira.
- Euskararen erabilera, oraindik ere, guztiz minoritarioa da euskal gizartearen eremu eta jendarte gehienetan.
- Erabileraren hazkundera motela da; 17 urtetan 3,4 puntu.
- Azken neurketaldia hazkunde-erritmoa bizitu egin du, nahiz eta ez iritsi lehen 3 neurketaldien arteko hazkunde-erritmoetara.
- Herrialdeen arabera:
  - Gipuzkoak euskararen erabileraren etengabeko hobekuntzarekin jarraitu du, %33ra heldu delarik.
  - Arabak lehen aldiz hobetu du modu nabarmenean kaleko erabilera (%4,7).
  - Nafarroa eta Bizkaiko erabilera-proporzioak egonkortu egin dira. Nafarroan %6-7 inguruan eta Bizkaian %10-11 inguruan.
  - Iparraldean euskararen erabileraren galerak ez du etenik.
- Adin-taldee dagokienez, hizkuntza normalizazio-prozesu batean egon daitekeen hurrenkerarik onena lortu dute: zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta euskararen erabilera altuagoa.
- Haurren artean handitu da gehien erabilera (%20,8), helduek ere puntu batean hobetu dute (%12,3) eta zaharrek etengabeko jaitsieran darraite (%10,6). Gazteen artean, berriz, ez da hobekuntza nabarmenik gertatu, aurreko neurketaldiko ia proportzio bera lortu dutelarik (%13,8).
- Euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren hizkuntzen erabilera %2,3koa da.
- Emakumezkoek gizonezkoek baino erabilera-tasa hobeak azaldu dituzte sistematikoki.
- Elkarrizketetan haurrak tarteko direnean euskara gehiago erabiltzen da haurrik ez dagoenean baino, nahiz eta zonalderik erdalduneetan haurrak bakarrik daudenean erabilera nabarmen jaisten den.
- 10.000 eta 25.000 biztanle arteko herrietan egiten da euskara gehien (%26,9) eta ondoren herri txikietan (<5.000 biztanle). Herriak zenbat eta handiagoak izan, ordea, euskararen erabileraren hazkunde-erritmoa orduan eta handiagoa.

2006ko neurketak ohiko zapore gazi-gozoa utzi digu.

Alderdirik positiboenen artean, erabileraren hobekuntza, hazkunde-erritmoa bizitzea, Gipuzkoa eta Arabako eta haurren arteko erabileraren hobekuntza.

Baina aspektu positibo horiekin batera, badaude kezka bizia eragiten duten beste batzuk. Aipagarrienak, Iparraldeko galera etengabea eta Nafarroako erabateko geldialdia, eta, hobekuntzarako joera aldatu eta gero, aurrerapenik eza Bizkaian eta gazteen artean.

Oso labur. Neurketa hauek azaldu dituzten joerak aldatu edo bizkortuko badira, ezinbestekoa izango da Iparraldean eta Nafarroan euskararen aitortza eta status ofiziala lortzea eta Euskal Herri osoan, hizkuntza politika eraginkorrak sustatzea, ezagupenetik erabilerarako jauzia eragingo duten lan-ildo estrategikoak indartuz eta indar berezia eginez haurren eta gazteen adin-taldeen.

## OHARRAK

1. Kike Amonarriz eta Lionel Joly (2007): "Hizkuntzen Kale Erabileraren Neurketa 2006" in *BAT Aldizkaria*, 62. zka.
2. Hainbat egile (2002): "Kale erabileraren IV. Neurketa, 2001" in *BAT Aldizkaria*, 43. zka.
3. SIADECO (1993): "Euskararen erabilera leku publikoetan" in *BAT Aldizkaria*, 9. zka.
4. Olatz Altuna (2002): "Erabileraren IV. Kale Neurketa. Emaitzen azterketa" in *BAT Aldizkaria*, 43. zka.
5. Op.cit.
6. Mikel Arregi (2002): "Euskararen erabilera Nafarroan. Kale neurketaren emaitzen azterketa" in *BAT Aldizkaria*, 43. zka.
7. Iñaki Martínez de Luna (2002): "Euskararen kale erabilera Araban: 1989-2001" in *BAT Aldizkaria*, 43. zka.
8. Kike Amonarriz (1995): "Euskararen erabilpenaren feminizazioa" in *BAT Aldizkaria*, 15. zka.
9. Jone Miren Hernández (2002): "Kale Neurketa: Sexuaren arabeko erabileraren emaitzak eta horien inguruan sortutako galderak" in *BAT Aldizkaria*, 43. zka.
10. Jone Miren Hernández (2004): "Euskara dela eta... Neskek, zer diote?" in *BAT Aldizkaria*, 53. zka.

---

**2006ko neurketak ohiko zapore gazi-gozoa utzi digu.**

**Alderdirik positiboenen artean, erabileraren hobekuntza, hazkunde-erritmoa bizitzea, Gipuzkoa eta Arabako eta haurren arteko erabileraren hobekuntza.**

**Baina aspektu positibo horiekin batera, badaude kezka bizia eragiten duten beste batzuk.**

**Aipagarrienak, Iparraldeko galera etengabea eta Nafarroako erabateko geldialdia, eta, hobekuntzarako joera aldatu eta gero, aurrerapenik eza Bizkaian eta gazteen artean.**